



Martxoak 8: Emakumeen Nazioarteko Eguna Legazpin antolatutako ekintzak

Martxoak 5, astelehena, 16:00etan, Iratzarri elkarte

Tokiko produktuen kontsumoari buruzko hitzaldia.

Martxoak 8, osteguna

Legazpiko emakume taldea

#Emakumeok*planto nazioarteko ekimenarekin bat eginez greba eta 2 kontzentrazioetarako deia:

Greba: goizez 11:00-15:00 eta arratsaldez 18:00-22:00.

Kontzentrazioak: 12etan eta 8etan, Euskal Herria plazan.

Goizeko 11:30ean Hegialde auzotik irtenda, kalejira eta kazerolada.

13:30ean bazkaria Gizarte Zentroan, norberak berea eramanda.

Domingo Agirre ikastetxea

Sentsibilizazio ekintzak astean zehar:

- Eguna zergatik ospatzen den gogorarazi.
- Historiaren zehar eta gaur egun ospetsuak diren honako emakumeak gertutik ezagutu: Marie Curie, Clara Campoamor, Dolores Ibarruri, Hedy Lamarr, Aminetu Haitar, Irene Paredes, Edurne Pasaban eta Maialen Lujanbio.
- Horma-irudia osatu herrian dauden guneetan ipintzeko.
- Emakumeei buruz komunikabideetan agertzen diren albisteak aztertu eta hausnartu.

Egunean bertan, 15:15ean Laubide oinezkoentzako gunean, kalejira eta merienda gozoa.

Haztegi ikastola

- Gela bakoitzean Berdintasunaren gaia landuko da ipuinak, iragarkiak, albisteak, bertsoak, bideoak, lanbideak, muralak, poesiak, abestiak, ... aztertuz.
- Kartel eta lelo lehiaketa jarriko da martxan.

Egunean bertan, fotocall bat, taldeka argazkiak ateratzeko.

Kartelak leloekin zintzilikatuko ditugu.

Nerabeentzako Zerbitzua

Astean zehar sentsibilizazioko ekintzak:

Txapen tailerra eta "Emakumearen papera gaur egungo gizartean"

Onfire talde feministarekin hausnarketa partekatua.



**LEGAZPIKO
UDALA**



Martxoak 9, ostirala, 19:30ean Kultur Etxeko Areto Nagusian

IKUSENTZUNEZKOEN EMANALDIA

“Emakumea film laburrean” Filmazpit programaren eskutik, emakumeari eragiten dioten arazoak lantzen dituzten 5 film labur eskainiko dira, bertsio originalean, euskarazko azpigituluekin.
Kultura zerbitzuak antolatuta.

Martxoak 10, larunbata

- Urederrara irteera, Iratzarri elkarteak antolatuta.

- Urola Garaiko Emakumeen Bazkaria, Legazpiko Gizarte Zentroan.

Urola Garaiko Udal-Elkartearen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Arloak antolatuta.

Martxoak 14, asteazkena, 18:30ean Kultur Etxeko Areto Nagusian

MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOAK DVDan

OPERA “Carmen” I. zatia. G. Bizet-ena.
Kultura zerbitzuak antolatuta.

Martxoak 21, asteazkena, 18:30ean Kultur Etxeko Areto Nagusian

MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOAK DVDan

OPERA “Carmen” II. zatia. G. Bizet-ena.
Kultura zerbitzuak antolatuta.